

SPRIk, FEIk eta ELKARGIk Aurrera, Start Up-ak finantzatzeko tresna berria, aurkeztu dute

- **Jarduera ekintzaile bat gartzen duten eta enplegua sortzeko konpromisoa hartzen duten ETE sortu berriei epe luzeko maileguak emango zaizkie.**
- **Aktibo finkoko zein aktibo zirkulatzailerako elementutan inbertsioak finantzatu ahal izango dira.**
- **FEIk 5 milioi eurokorekin hornituko du funtsa eta maileguek ELKARGIren abala eduki beharko dute.**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak, Ogasun eta Ekonomiako sailburu Pedro Azpiatzuk eta ELKARGIko presidente Josu Sanchezek, gaur, hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmen horren bitartez, Euskadiko pertsona ekintzaileek finantziario-tresna berri bat edukiko dute. Tresna horrek Start Up-ei hazten eta garatzen laguntzeko helburua izango du.

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean kokatutako BIC Bizkaian egindako ekitaldian, tresna berri hau aurrera ateratzea lortu duten erakundeetako hiru ordezkariak pozik agertu dira Aurrera finantziario programaren bidez Start Up-ei eskaintzen zaizkien aukera berriekin. Hitzarmen horrek, azken batean, Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana 2020an Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak (EGAS) bere gain hartutako konpromisoa gauzatzen du.

Hona hemen Aurrera tresna berriaren funtsezko ezaugarriak:

FEIren bidez Ogasun eta Ekonomia Sailak, EGASen bidez Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta ELKARGIk partekatutako interesa finantza-tresna berri hau sortzeko. Kasu honetan, FEIk gehienez 5 milioi euro jartzeko konpromisoa hartzen du:

- a) enpresa txiki eta ertain berriei (jarduera hasi zutenetik gehienez 3 urteko antzinatasuna) epe luzeko maileguak emateko.
- b) jarduera ekintzailea garatzen dutenei.
- c) eta 3 urtetan gutxienez 3 enplegu sortuko duen enpresa-proiektu batekin konprometitzen direnei.

Enpresek zerga-betebeharrak egunean eduki beharko dituzte eta euren establezimenduek Euskadin kokatuta egon beharko dute.

Honako hauek finantzatu ahal izango dira:

- a) inbertsioak aktibo finkoko elementutan: makineria, lokalen egokitzapena, talde-ondasunak, instalazioak, informatikako aplikazioak...

- b) Aktibo zirkulatzailea, hau da, enpresaren ziklo normalak funtzionatzeko likidezia-premiak.

FEIk mailegu zuzenak emango ditu ondorengo baldintza hauekin:

- Gutxieneko zenbatekoa: 50.000 euro
- Gehieneko zenbatekoa: 250.000 euro
- Interes-tasa: Euribor 12 hilabete + % 1,25
- Amortizazio-epea: 7 urte artekoa
- Gabealdia: 2 urte artekoa

Eskatzaileak proiektua finantzatzeko beharraren % 30 ezarri beharko du; hortaz, FEIk ipinitako 5 milioi euroak, gutxienez, **7,15** milioi euro bihurtuko dira.

Finantza-eragiketak zuzenean FEIk formalizatzen ditu eta ELKARGIren abala eduki beharko dute. ELKARGIk eskaerak ebaluatuko ditu bere abal-emaile jardueran erabili ohi dituen analisi- eta erabaki-irizpideak aplikatuz.

Finantziario-ildo berri horrek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eskainitako laguntza ekonomikoen zerrenda (diru-laguntza, mailegua eta kapitala) osatzen du, ETEei malgutasun handiagoko finantza-tresna berri bat (aktibo finkoa + zirkulatzailea), epe luzeko ikuspegia eskainiz, eta ELKARGIren babesak suposatzen duen bermearekin.

Aurrera finantziario programa honek bat egiten du sortzeko, hazteko eta finkatzeko ekintzaileen eta ETEen behar nagusiak indartzeko Eusko Jaurlaritzako EGASen ahaleginarekin:

- BICen eta Ekintzaile Programaren bitartez, hasieran laguntzea, babestea eta orientatzea.
- Ekintzailetzaren etapan arabera, finantzaketako eta inbertsioko mota diferentetako laguntza ekonomikoak (Basque Fondo, Gauzatu...) eskuratzea.
- Merkatuko/bezeroen lehen aukerak (BIND 4.0 programa...) eskuratzea, hazteko eta finkatzeko ezinbesteko palanka gisa.

Erakunde arteko konpromisoaren esparrua

2017ko urriaren 2an Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana – EEP 2020 onartu zuen. Plan horren helburu nagusia da ekintzailetza era integralean babestea gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta iraunkor gehiago sor daitezen lortzeko, batez ere etorkizuneko sektoretan, Euskadin ekonomia- eta gizarte-eraldaketako etapa berri bat sortuz.

Helburu global hori lortzeko, bederatzi helburu estrategiko definitu ziren. Helburu horiek ekosistema ekintzaile baten oinarritzko hiru eremuak barne hartzen dituzte: proiektuak sortzeko iturriak (1,2,3), babes-tresnak (4,5,6) eta euskarri-azpiegiturak (7,8,9).

1	KULTURA eta BALIO EKINTZAILEAK <i>Kultura eta balio ekintzaileak gizartearen maila eta bizitzaren etapa guztietan sustatzea, biztanleriak etorkizuneko aukera gisa ekintzailetzaren kontzientzia positiboa izatea ziurtatuta.</i>	2	GIZA KAPITALAREN TREBAKUNTZA eta KONEXIOA <i>Giza kapital ekintzailearen trebakuntza indartzea, bereziki hezkuntza-etapa guztietan, eta haren erakarpena, mugikortasuna, elkarrekintza eta ekintzailetza-aukera berriekiko konexioa erraztea.</i>	3	EKINTZAILETZAKO ITURRIAK eta IDEIAK <i>"Kala" eta iturrietatik sortutako ideien eta ekimen berrien masa kritikoa eta kalitatea areagotzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren premia espezifikoak kontuan izanik.</i>
4	FINANTZAKETA eta INBERTSIOA <i>Sortzeko, garatzeko, hazteko eta finkatzeko ahalmena duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko aukerak eskaintzea.</i>	5	MERKATUAN SARTzea <i>Proiektu ekintzaileei, bereziki RIS3 etorkizuneko sektoreetan ahalmen handienekoei, merkatuan sartzeko aukerak eta "lehen bezeroak" eskaintzea.</i>	6	LAGUNTZAKO PROZESU, ZERBITZU eta PROGRAMAK <i>Dauden laguntzako prozesu, programa eta zerbitzuak egokitztea, erakundearteko koordinazio eta lankidetzak publiko-pribatuaren bidez, biztanleria ekintzailearen premietara.</i>
7	FISKALITATEA eta ARAUDI BIDERATZAILEA <i>Tresna fiskalak eta araudiak eguneratzea lan ekintzaileari oztupoak kentzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa araudien garapenean eta fiskalean erreferentzia gisa kokatuta.</i>	8	AZPIEGITURA ADIMENDUNAK <i>Proiektu berriak sortzeko, heltzeko, hazteko eta finkatzeko lagungarri izango diren azpiegitura adimendunak izatea.</i>	9	POSIZIONAMENDUA ETA EKOSISTEMA INDARTZEA <i>Euskal Autonomia Erkidegoa bere herritarren eta Estatuko eta nazioarteko beste ingurune batzuetan "ekiteko leku on" gisa posizionatzea, gero eta laguntza-ekosistema osatu, aktibo, sinergiko eta ezagunagoa duena.</i>

1., 2. eta 3. kategoriak ekintzailetzaren lehengaiari lotuta daude, hau da, balioei, pertsonen eta ideien. 4., 5. eta 6. kategoriak hasitako proiektuak laguntzeko eta arintzeko palanka nagusiei lotuta daude, hau da, diruari, bezeroei eta adituen babesari. Eta 7., 8. eta 9. kategoriak "joko-eremuarekin" lotuta daude. Zerga-sistema, esparru arauemailea, azpiegiturak eta ekosistema edo agenteen sarea bezalako oinarritzko baldintzen gainean gertatzen eta garatzen da ekintzailetza.

Bigarren arlo horretan kokatzen da 4. Finantzaketa eta inbertsiorako lorbidea helburu estrategikoa. Bertako jarduketako bat —lehentasun handikoa— finantziario publiko-pribatua sustatzea da, eta premia gisa honako hau identifikatzen da: proiektu ekintzaileak finantzatzen laguntzea (aktibo finkoak, kapital zirkulatzailea), hainbat kreditu-ildoren bitartez, batez ere RIS3 lehentasuneko sektoreetan. Izan ere, enpresek —tamaina txikiagokoek eta berriek bereziki— finantza-merkatuan zailtasunak zituztela ikusi zen, euren enpresa-proiektu propioaren bermearekin beharrezkoa zuten epe luzeko finantzazioa eskuratzeko.

Horretarako, EEP 2020ren helburu bezala honako hau planteatu zen: ETE ekintzaileei eta berriei —industriaren edo hauei lotutako zerbitzuen arlokoak— ELKARGIK abalatutako Finantzen Euskal Institutuaren (FEI) maileguen ildo berri bat eskaintzea, aktibo finkotan eta kapital zirkulatzailean inbertitzeko. Hitzarmen hori BIC Bizkaian gaur goizean egin den ekitaldian sinatu da.